

biziLEIOAbiziz Leioako bizikleten mailegu automatizaturako sistema da.

Zerbitzu honi esker, zure udalerritik modu **erraz** eta iraunkorrean mugitzeko aukera izango duzu, **ingurumena** errespetatuz, eta zeure **erritmoan**, egun osoan.

BIZILEIOABIZIZ

BIZIKLETEN MAILEGU AUTOMATIZATUA

ZERBITZUA ZELAN ERABILI

Zatoz zure txartel elektronikoko pertsonalizatuarekin udalerrian jarritako mailegu automatizatuko edozein gunetara: Leioako metro-geltokira, Lamiakoko metro-geltokira, Sakoneta kiroldegira eta Artatza kalera.

Jarri txartela informazio-guneko irakurgailuan, eta sartu zure PIN kodea. Aukeratu nahi duzun bizikleta, eta atera ezazu bankadatik minutu bat igaro baino lehenago.

Ordubetez erabili ahal izango duzu, eta, gero, edozein mailegu-gunetan utzi beharko duzu. Bertan uzten duzunean burrunbatxo bat entzun beharko duzu; soinu horrek esan nahi du bizikleta behar bezala itzuli duzula.

Nahi bezain beste aldiz egin dezakezu gauza bera (mailegu baten eta bestearen artean hamabost minutuko tarte utzita, betiere). Leioako erabiltzaileek bereizketarik gabe uztartu ahal izango dituzte biziLEIOAbiziz zerbitzuko bizikletak eta Getxoko mailegu-zerbitzuetakoak, alokairu-sistemaren erabilera partekatua eta bizikleta erabiltzeko aukera ematen duen akordioari esker.

Garraibide **iraunkorra** da, eta, berari esker, metroa bezalako beste garraibide batzuetara hurbildu ahal izango zara.

900 840 345

www.biziprest.com/bizileioabiziz
bizileioabiziz@biziprest.com



Bizikletaz
zoazenean,
gogoratu: trafiko
seinaleak eta
arauak errespetatu
behar dituzu.



udalsarea²¹
Partzipazioaren bidezko udalerririk ez duen garaia
red vasca de municipios hacia la sostenibilidad